

Txirristi Mirristi

DIEZ RUIZ DE EGINO, Letizia

dre-letti@hotmail.com

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

LASARTE LEONET, Gema

gema.lasarte@ehu.es

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2017-02-25

Noiz onartua: 2017-07-17

Euskera. 2016, 61, 2. 569-605. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ahozko tradizioaren bidea azaleratzearekin batera, etorkizunerako begirada planteatzen da. Ahozko tradizioaren garrantzia eta onurak oinarritzapen teoriko baten bidez ikustearekin batera, bilketa lana egin da eta horretarako erreminta sortu da. Erreminta honen bidez hamazazpi eskoletako guraso nahiz ikasleengana joan gara ahozko erretorikako biltegia osatzeko. Erreminta honetan jaso diren osagaiak, esaera zaharrak, olerkiak, kantak, aho korapiloak, zotz egiteko formulak dira, besteak beste. Jaso diren emaitzak analizatu dira. Ikusi da betikoak errepikatzen diren edota berriak nahiz mistoak sortu diren. Emaitza hauek egun ezagunenak eta egun eskola eremuan erabilienak diren folklore bildumetan azaltzen diren ahozko esapide eta osagarriekin parekatu eta ondorioak atera dira. Azkenik, jasotako ahozko erretorikako osagaiekin bilduma bat atondu da eta ikastetxeetan erabil dadin eskaintzen da. Bertan, gaur egungo eskolan transmititzen den ahozko literatura agerian dago. Hori esanda, bistan da eskoletan kudeatzen ari den ahozko tradizioaren inguruko hurbilketa edo lagin txikin bat besterik ez dela eskuartean duzun lana, alderdi teorikotik nahiz enpirikotik behatuta.

Hitz-gakoak: Haur literatura, ahozko erretorika, folklorea, eskolak.

A estudiar la tradición oral se plantea una perspectiva de futuro. Se ha dado una base teórica a los beneficios y a la importancia de la tradición oral y se ha hecho un trabajo de recopilación, creando para ello una herramienta adecuada. A través de dicha herramienta nos hemos acercado a alumnos y padres de diecisiete escuelas. Gracias a la aportación de estos hemos creado un catálogo de retórica oral. Hemos recopilado, entre otros, refranes, poesías, canciones populares, trabalenguas y formulas para echar a suertes. Se han analizado los resultados y se ha comprobado si se repiten los elementos de siempre, o por el contrario se han creado nuevos, o hay alguna fusión entre lo clásico y lo nuevo. Se ha analizado a su vez, si estos ejemplos son los que mas se escuchan en el ámbito escolar en general, y si a su vez aparecen ya en las antologías de literatura oral. Para concluir, se han recopilado y puesto a disposición de las escuelas todos estos elementos de retórica oral. Hay que tener en cuenta que en ella se recoge la literatura oral que se transmite actualmente en los centros. Todo hay que decirlo, esto no es mas que una pequeña aproximación, tanto desde el punto de vista teórico como empírico, a la producción de tradición oral que se esta dando en el ámbito escolar.

Palabras clave: Literatura infantil, retórica oral, folclore, escuelas.

Lorsque l'on étudie la tradition orale, se profile une perspective d'avenir. Une base théorique s'est dessinée concernant les bénéfices et l'importance de la tradition orale et on a réalisé un travail de collecte en créant dans ce but un outil adapté. Grâce à cet outil, nous avons contacté des élèves et des parents de dix-sept établissements scolaires. Grâce à leur contribution, nous avons créé un catalogue de rhétorique orale. Nous avons collecté des

proverbes, des poésies, des chansons populaires, des allitérations et des formules de tirage au sort. On a analysé les résultats, vérifié s'il s'agit d'éléments habituels ou si au contraire on en a créé de nouveaux et s'il existe une fusion entre classique et nouveau. On a ensuite analysé s'il s'agit des exemples les plus utilisés dans le domaine scolaire en général et si on les retrouve dans les anthologies de littérature orale. Pour conclure, on a collecté et mis à la disposition des écoles tous les éléments de rhétorique orale. On y trouve la littérature orale qui se transmet actuellement dans les écoles. Il ne s'agit à vrai dire que d'une petite approximation, tant du point de vue théorique que du point de vue empirique, sur la production de tradition orale pratiquée dans l'environnement scolaire.

Mots-clés: Littérature pour enfants, rhétorique orale, folklore, écoles.

A perspective for the future is suggested for study of the oral tradition. A theoretical basis was established for the benefits and the importance of the oral tradition, and work was done on compilation, creating a suitable tool for this. We used this tool to approach pupils and teachers in seventeen schools. Thanks to their contributions we created a catalogue of oral rhetoric. We compiled, among other things, sayings, poems, songs, tongue twisters and good luck formulas. The results were analysed and it was checked whether the same elements as usual were repeated, or whether on the contrary new ones appeared or there had been any fusion between the classic and the new. In turn, it was considered whether these examples are most widely heard in the school sphere in general, and whether they already appear in anthologies of oral literature. Finally, all these elements of oral rhetoric were compiled and made available to schools. It should be borne in mind that this consists of the oral literature currently transmitted in schools. It must also be pointed out that this is no more than a brief approximation, both from a theoretical and from an empirical point of view, to the oral tradition that is being shaped in the school environment.

Keywords: Children's literature, oral rhetoric, folklore, schools.

Sarrera

Ahozko erretorika Haur Literaturan pertsonon garapenenaren alde egin dezakeen baliabide erakargarria da. Belaunez belaun ahozkotasanaren bidez gure folklorea transmititu izan dugu, pertsonen arteko interakzioa eta harremana sortuz. Beraz, ahazko erretorika folkloreakaren transmisiorako eta iraupenerako, eta baita pertsonon ongizaterako ere, oinarrizkoa dela baieztatu dezakegu.

Historian zehar ahazko tradizioak galera prozesu bat bizi izan du. Baina, askotariko autore eta ikerketei esker ahozkotasanaren tradizioak gure baitan dituen onurak argi geratu dira, izan ere, tradizioak pertsonak eraikitzen laguntzen du. Horregatik, egungo eta etorkizunerako gure eginkizuna funtsezkoa da, tradizioa sortzen jarraitu behar dugu.

Lanari indarra emateko eta azturaren egungo egoera zein den jakiteko asmoz, ikerketa bat aurkeztuko dugu. Ikerketaren bidez, eskola eremuko ahazko literatura biltzea eta folkloreakaren bilduma bat egitea dugu helburu. Horretarako, baliabide bilgarrri bat sortu dugu, hots, bilketa erreminta edota fitxa bat, non zehaztu diren bildu beharreko materialen *itemak* edota kontzeptuak galdetegi baten bidez. Behin fitxen erantzunak bilduta eta emaitzak interpretatuta, askotariko ondorioak ateratzeko aukera izan dugu. Beraz, ondorio zehatz bat azaleratuko bagenu, tradizioa transmititzen dela eta tradizioa berri bat sortzen ari garela esango genuke.

Marko teorikoa

Euskaltzaindiaren *Literatura Terminoen Hiztegia*n azaltzen den definizioaren arabera, «erretorika grekotik datorren hitza da, eta jendaurrean hitz egiteko trebetasunari egiten dio erreferentzia» (Altzibar, 2008:240). Mendetan zehar irakasgai garrantzitsua izan da eta literaturarekin harreman estua izan du; hasieran ahozkotasanari zuzenduta zegoen, baina geroxeago idatzirako bidea egin zuen. Euskal Literaturan, idatzizkoan zein ahazkoan eragin zuzena izan du, gaur egungo bertsolaritza, ahazko genero erretorikoa, horren paradigma dugu (Garzia, 2002).

Ahokotasunak lengoaiarekin zerikusi zuzena izan du beti, izan ere, ahokotasuna lengoaiarekin adierazten dugu. Gainera lengoia aintzat hartuz, landuz eta garatuz, ahokotasuna sustatzen da, eta, hartara, komunikazioa eta adierazkortasuna lantzen direla esan dezakegu.

Horrela izanda, ahozko erretorika on bat bermatzeko, lengoaiaren erabilpen egokia beharrezkoa da. Izan ere, lengoia, gure kulturaren parte eta gizon-emakumeen jaraunspen kulturalaren transmisiorako eta asimilaziorako eragile nagusia da. Lengoaiaren erabilpenaren ondorioz, pertsonen arteko interakzioa sortzen da eta pertsonok gai gara gure lengoia inguru sozialera moldatzeko. Esaterako, helduen eta haurren arteko interakzioa sortzen denean, helduak gai izan behar du bere lengoia testuinguru sozial horretara moldatzeko, kasu honetan, haurren ulermen gaitasunera. Horretarako, helduak hainbat baliabide erabiliko ditu, haur-hizkera, ahots tonu ezberdinak, kantak, ipuinak... Garrantzitsua da horrelako baliabideak erabiltzea, izan ere, Juan Kruz Igerabidek (1993:7) esaten duen bezala «Haurrak mintzamina eskuratu baino lehenago dar-dar-hizketa edo bibraziozko komunikazioa besterik ez du nabaritzen» beraz, haurrak ahokotasunaren mundura hurbiltzeko ezinbestekoak dira.

Baina, haurrak ahokotasunaren munduan murgiltzen hasteko benetan eraginkorra eta funtzionala izan den eta gaur egun den baliabidea Haur Literatura da, eta lan honen gaiarekin lotura eginez, Tradiziozko Ahozko Haur Literatura zehazki; betidanik ezagutu ditugun esaera zaharrak, olerkiak, haur hizkera, zotz egiteko formulak, aho korapiloak, jolasak, kantak, lo-kantak, igarkizunak, ipuin hasierak, ipuin amaierak, koplak, ipuin-herrikoiak... biltzen ditu termino horrek (Etxaniz, 2009). Juan Kruz Igerabidek, *Bularretik Mintzora* liburuan (1993:43), «Haur literaturak tradizioan bizirik iraun du eta nolabait ere bizirik dirau gaur egun, nahiz hiltzorian egon», aipatzen du. Baina, zer da tradiziozko ahozko Haur Literatura? Zergatik iraun du hainbeste urte? Zergatik dago hiltzorian? Galdera hauek erantzuten saiatu dira aditu asko, esate baterako, Juan Kruz Igerabide, Carmen Angeles Perdomo López, José Rodríguez Polo, Teresa Colomer, Jeronimo Jose Bellido Zambrano, Xabier Etxaniz, Yolanda Arrieta, Pedro Cerrillo... eta amai-gabea izan daitekeen adituen zerrenda.

Ahozkoaren tradizioa definitzen saiatzen bagara, Jeronimo Jose Bellido Zambranok (2010) sorturiko definizioa aipatuko genuke:

La tradición oral es una forma de transmitir desde tiempo inmemorial la cultura, la experiencia y las tradiciones de una sociedad a través de relatos, cantos, oraciones, leyendas (Zambrano, 2010:1).

Hortaz, autore honen ideiaren ildotik, ahozko tradizioa betidanik existitu da eta kultura baten folklorea biltzen du. Ahozko tradizioak kultura bakoitzaren istorioak, ohiturak eta ezagutzak biltzen ditu, ahozko literatura sortuz. Ahozko literatura literatura herrikoa izan da, herriak sortu eta garatu du, eta gehienetan gauzak irakasteko erabiltzen zen. Transmittitzen ziren istorioetan gizarte sistemaren kritikak zeuden, beti ironiaz eta umorez beteak (Etxaniz, 2011). Ahozko tradizioaren ezaugarri nabarmena da, ahoz-ahoz transmititzen dena, esperientziak etengabe berregituratzen eta biziberritzen, atzeraelikadura amaigabe batean sartuz (Igerabide, 2003). Beraz, igorlearen arabera, istorioak modu batekoak edo besteak izaten ziren, igorle bakoitzaren ideologia agerian geratuz: ondorioz, entzuleek istorioak entzuten zituzten bakoitzean, istorio ezberdinak entzuteko aukera zuten.

Baina distira guztiak ez dira urre. Ahozko literaturak aldaketa bortitza bizi izan zuen idatzizkorako trantsizioan. Ahozko literatura idatzizkora pasazenean, aldaketa ideologikoarekin batera egin zen, hau da, ahozko tradizioan egiten ziren kritikak baztertzen saiatu ziren, eta ahozkotasunaren berregituratzea eta naturaltasuna galduz joan zen, ahozkotasunetik urrunduz. Honekin batera, ahozko kontakizunak idatzizkora pasatzeak aldaketa garrantzitsua ekarri zuen, esaterako inprentaren asmaketa eta komunikabideen sorrera. Euskal Literaturak ere aldaketa nabaria bizi zuen, literatura herrikoa transkribatzerako orduan zentsura prozesua bizi izan zuen, gehienbat erlijioaren poderioz (Etxaniz, 2004).

Ahozko literaturak idatzizkora pasatzean bizi izandako aldaketaz gain, urteekin eta hainbat arrazoiengatik ahozko tradizioa galtzen joan da, nahiz eta oraindik ahozko genero batzuetan bizirik egon. Galera horren zergatiak askotarikoak dira, baina arrazoi guztien jatorria bera da, munduaren globalizazioa.

Globalizazioaz hitz egiten dugunean, munduaren modernizazteaz hitz egiten dugu, hau da, munduak urteetan zehar bizi izan duen modernizatze prozesuak eragindako aldaketez. Honen jatorria informazioaren eta komunikazioaren iraultza teknologikoan aurkitzen da. Eta beste faktore askorengan bezala, gure tradizioan eragin zuzena izan du, batez ere gure inguruko bizitza erabat aldatuz eta gure pentsamendua eta ikuspuntua globalizazioaren nahikerietara zuzenduz.

Honekin guztiarekin, eta Carmen Angeles Perdomo Lópezek (2003) aipatzen duen ideiarekin bat eginez, gaur egungo tradiziozko ahozko haur kultura gehiena ia desagertu da, mundu elektronikoak ordezkatzuz, eta honen ondorioz, haurren gune ludiko eta irudimenezkoa mundu elektronikoaren menpean geratuz. Gure tradizioa globalizazioaren eskuetan utziz gero, gure sustraien, gure memoria historikoaren eta gure ondare kulturalaren galera izango da (Rodríguez Polo, 2003).

Juan Kruz Igerabidek (1993) tradizioaren galeraren inguruan hausnartu zuen, ideia interesgarriak eta islatzaileak agerian utziz. Aditu honek dio teknologiak plazer elementuak hartu eta era itxuragabea ugaltu dituela, betiere, irudimenaren kontsumorako. Horren bidez, irudiak eta hitza mugarik gabe ugaltzeko eta deformatzeko aukera sortu da. Horrela, gaur egungo gizarteak aspaldiko ipuin zaharkituak egokitu eta itxuraldatu ditu. Gainera, istorioen eta irudien bila *mass mediara* jotzen dugula aipatzen du, pertsonengana jo beharrean, hala hitzaren espiritua galduz. Igerabideren esanetan (1993:10), «Amonaren irudi borobilaren lekua telebistak hartu du; aitona-aren ahots oihartzuntsuarena, bafleak».

Urteekin eta globalizazioaren poderioz ahozko tradizioa galtzen joan den arren, ez dugu ahaztu behar oraindik bizirik dagoela. Gainera, XIX. mendean, hainbat gertakariengatik, tradizioa berreskuratzeko interesa garatu zen. Alde batetik, industrializazioaren eta alfabetatzearen eraginez sorturiko aldaketa soziala zela eta; aldaketa horien eraginez ohiko ahozko tradizioaren galera zettorren, eta beraz, ahozko transmisioa babesteko tes-tuak finkatzeko desioa jaio zen. Bestalde, europar kultura nazionalen ezarpenaren momentuan, kultura herrikoari buruzko interesa piztu zen herriaren adierazpen moduan; hori kontuan hartuta, herrialde bakoitzaren

kultura herrikoia edo folklorea aztertzeko ikerketak sustatu ziren (Colomer, 2010).

Aurrerago, folkloreak eta ahozko tradizioaren inguruko azterketa anitz burutu ziren, gaiaren inguruko emaitza oso positiboak lortuz. Ikerketak aurrera egin ahala, ahozko tradizioaren inguruko interesa gero eta handiagoa zen, eta tradizioaren jatorriari eta istorioan izan duen funtzio sozialari buruz ikertzen hasi ziren. Duela gutxi, psikologia ahozkotasanaren gaiak interesatzen hasi zen, batez ere, irudikapen psikikoaz, izan ere, ahozko tradizioak kultura desberdinetan izan duen arrakasta aztertzea zen. Azkenean, ikerketa askoren ustez, ahozko tradizioak biltzen dituen generoen ezaugarriak pertsonen adierazpenerako funtsezkoak dira (Colomer, 2010).

Horren haritik, gaur egun, asko izan dira horren inguruan ikertu eta idatzi duten autoreak; bakoitzak bere ikuspuntutik baina guztiak mezu berarekin, ahozko tradizioa ezin da galdu, ahozkotasanak dituen onurak tradizio hitza baino haratago doaz. Hurrengo lerroetan ahozkotasanaren garrantziari buruz autore askok plazaratu dituzten ideiak edota iritzia azalerautuko ditugu, zer esanik ez iritziekin ados gaudela.

Teresa Colomer-ek, *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual* (2010) liburu ezagunean, literaturaren ikuspuntu globalari buruz hitz egiten du, ahozko literaturaren tradizioa ahaztu gabe. Colomerren ustez, ahozko literaturan pertsonen arteko interakzioa egon behar den arren, aldi berean beste baliabide askok parte hartzen dute. Izan ere, hurrek erritmo bat jarraitzen dute, keinuak egiten dituzte, gauzak errepikatzen dituzte, abesten dute, arau sozialak ikasten dituzte, forma linguistikoak ikasten dituzte eta bakoitzaren gaitasunak esploratzen dituzte. Beraz, haur folkloreak parte diren baliabideak hiru multzotan sailkatzen ditu Colomerrek: a) Estimulu pertzeptiboekiko harremanak (soinudun eta motorrak): ahotsa, erritmoa, melodia, mugimendua, intonazioa; b) Jolasa eta aurkikuntzaren arteko lotura afektiboa: errepikapenak, memoria...; c) Lotura soziala: besteekiko harremana, hizkuntzaren jabeakuntza, arau sozialak, munduaren ezagutza.

Jeronimo Jose Bellido Zambranok (2010) berriz, ahozko tradizioa baliabide iturri agorrezina dela dio, askotariko funtzioak eskainiz. Ahozko tra-

dizioa erabilia, literaturara lehenengo hurbilketa egiten da, irakurtzen eta idazten jakin baino lehen. Gainera, literaturaren erritmorako eta musikalitaterako aukera ematen du era ludiko batean, bakoitzaren kulturara hurbiltzeko, kulturaren historia eta ohiturak ikasiz. Aipatzen du ere, zenbait balore lantzeko aukera ematen duela, esaterako, adiskidetasuna, solidari-tatea, tolerantzia, errespetua, maitasuna, arrazismoa, desberdintasunak eta baztertzea.

Carmen Angeles Perdomo López (2003) La Laguna Unibertsitateko irakasleak hurrei zuzendutako ahozko tradizioak balore hezigarriak dituela defendatzen du. Bere defentsan zortzi balore desberdintzen ditu: 1) Ludikoa: jolasa da abiapuntua haurraren pertsonalitatea garatzen joateko emozionalki garatzen den bitartean; 2) Linguistikoa: ahozkotatasunaren eta pentsamenduaren lotura. Lexikoa, intonazioa eta ahoskatzea garatzeko; 3) Estetikoa: esku jolasak, kulunka jolasak, jolas erritmikoak; 4) Etikoa: jokatibide moralaren eraikuntza. Imitazioaren garrantzia; 5) Soziologikoa: munduaren ikuspuntuaren zabalkuntza. Haurrak bere kulturarekiko lehenengo harremanak; 6) Psikologikoa: pertsonaren ezaugarriak bultzatzen dira: behaketa, atentzioa, adimena, memoria, kreatibitatea, jarrera kritikoa, sensibilitatea; 7) Diziplinartekoa: era askotako ikaskuntza, curriculumaren edozein ikaskuntzarako baliagarria dena; 8) Afektiboa: Lehenengo jolasetan transmititzen den afektibitatea egokia izango da haurra literatura munduan murgiltzeko.

Jose Rodriguez Polo (2003) Granadako Unibertsitateko irakasleak egin-dako lanean, ahozko tradizioak haur hezkuntzako trebetasun linguistiko eta literarioen garapenean duen garrantziaz hitz egiten du. Dioenez, haurrak bere bizitzako lehen urteetan jaso dituen hitz guztiak etorkizunean baliagarriak izango dira eta hauek ahoz jasotzen dira. Beraz, ahozkotatasuna txikitatik lantzea lengoaiaren garapenerako baliabide ezin hobea da. Horrela, hel-duak haurrari bere esperientziak transmititzen dizkio, haurra hitzen munduan murgiltzen du, eta haurra bere kulturaren ezaugarriak ezagutzen hasten da. Ahozko literaturak eskolan duen paperari buruz hitz egiten du, ikaskuntza metodo berriak eskaintzen dituela esanez; didaktika berria, eraginkorra, aberasgarria eta lagungarria.

Ez dago dudarik, aurreko autore guztien iritziak eta ideiak kontuan hartu behar direla, eta hala izanda, une honetako eta etorkizuneko haurrei ahozko literatura transmitituz gero, pertsona berriak sortuko ditugula. Baina, gure barnean zeozer mugitzea lortu duena, eta bere hitzak gure gorputzean betiko gordetzea lortzen duena, Juan Kruz Igerabide da. Berak idatzitako liburuetan eta artikuluetan, ahozkotasanari, ahozko literaturari eta tradizioari buruz hitz egiten duenean, bere barneko sentimenduetatik hitz egiten du, haurarentzat edo pertsonarentzat onuragarria izan daitekeela adieraztea baino haratago joanez.

Igerabidek (1993, 2003, 2011) dioenez, pertsonon lehenengo esperientziak garapen emozionalarekin lotuta daude, gure baitan eta interakzioaren bidez gertatzen den esperientzia emozionalean. Haurra jaiotzetik elkarrekintza batean bizi da, eta txikitatik curiositatea sentitzen du, mundua ezagutzeko desioa du. Beraz, lehenengo zantzuak doinuak dira, bere gorputzak egiten dituenak zehazki eta pixkanaka hitzetara ailegatzeko prozesua martxan jartzen du. Tradizioarekin jarraitzeko lau zergati aipatzen ditu Igerabidek (2003): 1) hizkuntzaren «sena» lantzeko aukera paregabea eskaintzen duelako, 2) lurralde bateko eta historiako sustraiak sendotzeko bidea delako, 3) oreka psikologikoa lortzeko lagungarria delako, eta 4) gozamen estetiko lortzeko aukera ematen duelako.

Igerabidek, oro har, ipuinei egiten die erreferentzia bere lanetan, zehazki amandre ipuinei eta bere onurei. Amandre ipuinak honela definitzen ditu «bihotzetik bihotzera, ahotik belarrira, izakeratik izakerara eginiko elkarrizketa eta zubitatz jo genitzake» (1993:12). «Prozedura fantastiko aberatsak» (1993:12) bezala definitzen ditu. Euskal amandre ipuin baten adibidea «Mari Xor» dugu, Mari Errauskinen euskal aldaera. Haurrari ipuina eskaintzen diogunean, munduaren deskripzioa eskaintzen diogu, eta momentu horretan haurra harremanak sortzen hasten da. Sinbolo edo irudien bidez, mundua ulertzen hasten da, izan ere, sinboloak dira haurraren egia eta, hauen eraginez, haurrak sendotasuna eta segurtasuna sentitzen du.

Ez hori bakarrik, Igerabide haratago doa. Amandre ipuinen «eginkizun terapeutikoari» (1993:32) buruz hitz egiten du. Ipuinek, arazo edo oztopo

larriak islatzen dituzte, baita arazoei edo oztopoei aurre egiteko era askotariko irtenbideak daudela ere; beraz, haurrek arazoei aurre egiten ikasten dute. Izan ere, «ipuinetan, eguneroko existentziari buruzko galdera-erantzunen bidez, barne-errealitatearen eta kanpokoaren arteko harremanak irudikatzen dira» (1993:21); haurraren barne gatazka gogorrei irtenbidea eskaintzen diete. Istorio modernoekin konparatuz gero, hauek gauza «garratzak» alde batera uzten dituzte, eta benetan transmititu behar duguna da bizitzan gauza okerrak zein onak aurkituko ditugula.

Nahiz eta amandre ipuinak edota ahozko tradiziozko gainontzeko generoak zaharrak iruditu, lantzea eta tradizioarekin jarraitzea oso garrantzitsua da. Egia da tradizioa zaharkitua dagoela eta erlijioaren eta ideologiaren eragina handia dagoela jaso izan ditugun lanetan, baina honen aurrean bi aukera leudeke: tradizioa baztertzea eta tradizioak ematen dizkigun gauza onuragarri guztiak galtzea, edo tradizioarekin jarraitzea, buelta bat ematea bertsio berriak sortuz, betiere tradizioaren egitura errespetatuz, gehienbat irudi poetikoak.

Aurreko paragrafoetan esandakoa kontuan harturik, argi dago tradizioarekin jarraitzeko eta aipatutako onurak bermatzeko helduon papera oso garrantzitsua dela, gu baikara tradiziotik edan dugunak eta transmititzeko ahalmena dugunak. Igerabidek (2003) tradizioa berpizteko hiru eragile proposatzen ditu: a) familia: etxeko tradizioa. Seme-alabei ohe ertzean eserita urteetan zehar transmititu diena. Ohe ertza da ahozko haur tradizioaren gune nagusia; b) eskola: jolas-literatura ia guztiak gertatzen diren tokia. Horrekin bat datoz buru-garapenerako jolasak, igarkizunak; c) haur literatura: ahozko tradiziotik hurbil dagoenez, tradizioa berpizteko lagungarria. Pertsona bakoitzak irakurketa bat egiten dio tradizioari, interpretazio berriak sortuz eta tradizioa eraldatuz; horrela, tradizio bizia sortzen da.

Igerabidek esaten duenaren haritik, tradizioa etxean edo eskolan kontatzen, berpizten eta aberasten da. Horretarako, egoerak sortu behar dira eta momentuak aprobetxatu, eta, behar izanez gero, biltegi-tara joan eta hortik lan egin. Azkenean, tradizioaren transmisioa prozesu natural bat da, bihotzetik bihotzera kontatu behar dena. Hau horrela izanik, Igerabidek (1993) pertsonen arteko komunikazio zuzena bilatzea proposatzen du, hiru faktore

kontuan harturik: gurasoen eta umeen artean etendako tradiziozko katea berriro lortzea, gurasoek jarrera indartsua hartzea eta komunikabideek ere lan egitea.

Idea hauekin bat egiten du Carmen Angeles Perdomo Lópezek (2003). Perdomo Lópezen ustez, ahozko tradizioa irudizko munduan murgiltzeko bidea da. Horretarako, denon artean tradizioa berreskuratu, gogoratu eta bildu behar dugu. Perdomo Lópezek ahozko tradizioa jorratzeko irakasleentzako gomendio batzuk proposatzen ditu: eskolak folklorea babestu behar du; irakaslearen funtzioa da ahozko tradiziozko testuak biltzea eta transmititzea; irakaslearen helburua izan behar du bere ikasleen interesa piztea; ahozko tradizioa literaturara hurbiltzeko modu egokia ez delako ideiarekin apurtzea; ikasleen lengoia aberastea, komunikazio egoerak sortuz.

Ahokotasunaren transmisioan aditua den Pello Añorgak (2011) ahoz-kora hurbiltzeko gakoak proposatzen ditu. Añorgaren esanetan, ipuin klasiko guztiak ahots gora kontatzeko prestatuak daude, beraz, heldua eta haurra espazio berean elkartu behar dira eta, ahots gora jardunez, haien arteko lotura afektiboa sortuko da. Kontuan hartu behar da haurra gertuago bizi dela ahozkotik idatzizkotik baino, hau da, bere gorputzetik, beraz, keinua, arnasa eta begirada bere komunikazio adierazpenetik hurbil daude. Esandako guztiagatik, lan honek honako xedeak ditu.

Helburuak

1. Ahokotasunaren garrantzia eta onurak azaleratzea, hainbat adituren teorietan oinarrituz, ahozko literaturak gure kulturaren irauteko eta transmititzen jarraitzeko.
2. Gaur egun eskolan transmititzen den ahozko tradizioa biltzea, eskoletan banatutako inkesten bidez, bilduma bat sortzeko.
3. Lortutako emaitzak Haur Folklorearen Bilduma esanguratsuekin alderatzea, bilduma desberdinak aztertuz, gure ikerketan jasotako emaitzen ekarpen berriak eta errepikatzen direnak ikusi ahal izateko.

Metodoa

Atal honetan, folkloreaken bilduma burutzeko erabili den metodologiaren azalpena egingo da. Baina, hori azaldu baino lehen, eta apur bat lanaren nondik norakoak kokatzearen, testuingurua azaltzea komenigarria da.

Ikerketa haur hezkuntzako etapari zuzenduta dago, hots, 0-6 urte bitarteko haurretan oinarritu da. Horretarako, hainbat ikastolaren parte hartzea behar izan da. Oro har, Arabako ikastolak izan dira informazioaren bilketan parte hartu dutenak, gehienak Gasteizkoak izanik. Hortaz aparte, Bizkaiko (1) eta Nafarroko (1) ikastolek ere parte hartu dute. Denetara, 17 eskola.

Lanaren helburua folklore bilduma bat sortzea izanik, ikerketa aurrera eramanez ahal izateko, bilketa erreminta bat sortzea erabaki da. Bilketa erremintak jasoko dituen kontuak zehazteko asmoz, Xabier Etxaniz (2009) *Puntan-punta bat* liburuan jasotako folklorea oinarritzat hartu da, izan ere, bertan Etxanizek euskal tradizioetik jasotako elementuak biltzen ditu. Behin informazio bilketarako eremuak edo *itemak* zedarrirituta, erreminta sortu dugu. Erreminta baliabide bilgarri bat da, bertan bildu nahi diren datuak zehazten dira, eta azpian ezagutzak idazteko lekua dago. Ezaugarri hauek kontuan harturik, erreminta irekia eta kualitatiboa dela baieztatu daiteke. Erreminta horretan, bilduma sortzeko beharrezkoa den informazio guztia jasota geratuko da.

Erreminta sortzeari behatuz, ikerketa kualitatibo baten aurrean gaudela esan genezake. Izan ere, metodo kualitatiboak behatu nahi dena behatzeko tresna tipoa sortzea du helburu, eta hori da guk egin duguna lehenik eta behin.

No debemos olvidar que los diferentes métodos son herramientas distintas para responder a preguntas diferentes. Los métodos cualitativos se refieren a qué tipo y los cuantitativos a cuánto de un tipo (Kvale, 2011:74).

Lanaren helburua metodo kualitatiboekin lotzen badugu, konturatzen gara, hezkuntza arloan bezala, planteamendu kualitatibo batek errealitatea

ikusteko eta interpretatzeko aukera ematen duela. Lan honen kasuan, erreminta beteko duen pertsonaren jakintzak jasoko dira, egungo errealtatea agerian geratuz. Izan ere, sortutako erremintan agertzen diren taula batzuetan, ahozko literaturaren kontu batzuk agertzen dira (esaera zaharrak, kantak, aho korapiloak...) eta pertsona bakoitzak ezagutzen eta erabiltzen dituen arabera beteko ditu taulak. Atal honek askatasunez beteatzeko aukera ematen du, izan ere, bakoitzak ezagutzen duena bakarrik beteko du eta kopurua ez da kontuan hartzen, hau da, berdin du zenbat esaera zahar jarri edo zenbat kanta jarri. Ez hori bakarrik, inkesta testuinguru diferenteetan egin denez, testuinguru diferente horietako ezaugarriak jasota geratuko dira.

1. Lehen grafikoa: Bilketarako erabilitako inkesta.

AHOZKOTASUNA EGUNEZ EGUN GALTZEN ARI DENA	
Idatz itzazu ondorengo taulan ezagutzen eta erabiltzen dituzun kontu hauek: (leku gehiago behar izanez gero, orri zuri bat erabili eta inkestan grapatu)	
ESKOLAREN IZENA ETA HERRIA: ITURRIA:	
Esaera Zaharrak	Adibidez: Dagoenean bonbon, ez dagoenean hor konpon
Olerkiak	Adibidez: Kiku, kiku, kaikua, lotan dago katua. Kiku, kiku, lapurra, lotan dago txakurra. Kiku, kiku, ilargi: lo daudenen zaindari.
Haur Hizkera	Adibidez: txitxi (haragia), tete (txupetea)...
Zotz egiteko formulak	Adibidez: Dona dona katona, Sutondoan aitona, Lepotik behera kuttuna, Irten kanpora Neska edo mutil tuntuna...
Aho korapiloak	Adibidez: Akerrak adarrak okerrak ditu...

AHOZKOTASUNA EGUNEZ EGUN GALTZEN ARI DENA	
Jolasak (jateko, txalo, laztanak eta kilimak, atzamar, besoetan, kuku, magalean, sendatzekoak, korroan...)	Adibidez: Arre arre mandako, bihar Tolosarako, etzi Iruñarako, handik zer ekarriko, zapatak ta gerriko.
Kantak	Adibidez: O, bugi, bugi, bugi
Lo-kantak	Adibidez: Haurtxo txikia sehaskan dago, zapi zurian txit bero. Amonak dio: ene potxolo! Arren, egin lo,lo, lo.
Igarkizunak/Asmakizunak	Adibidez: Puntan punta bat, atzean zulo bat. Zer da? <i>Jostorratza</i>
Ipuin hasierak	Adibidez: Behin batean...
Ipuin bukaerak	Adibidez: Hala bazan edo ez bazan...

Emaitzak

Behin inkestak prestatuak zeudelarik, inkestak eskoletan banatu ziren, betiere, Graduko ikaskideen laguntzaz. Inkesten banaketa eskoletan egin aurretik, baimenak eskatu ziren. Fitxa guztiak jasota geratu ziren: Araban (29 inkesta), Bizkaian (4 inkesta) eta Nafarroan (3 inkesta), guztia (36 inkesta) jasoz.

Emaitzak jaso ondoren eta emaitzak ordenatu ondoren, ateratako emaitzak azaleratuko ditugu. Bilketa erreminta bakoitzak erantzun mota ezberdinak izango ditu, beraz, banan-banan aztertuko ditugu ondoren emaitza orokorrak atera ahal izateko.

Parentesien artean zehazten den zenbakia, kontu bakoitza inkestetan zenbat aldiz errepikatu den ikusteko baliagarria da. Esate baterako, *A ze parea, karakola eta barea* esaera zaharra (15), 15 inkestetan agertu da.

Kontuen ondoan (B) hizkia zehazten denean, Bizkaiko inkestetan soilik agertutako kontuak dira. Aldiz, (N) hizkia zehazten denean, Nafarroako inkestetan soilik agertutako kontuak dira. Eta generoari loturiko ñabarduren bat balu (G).

ESAERA ZAHARRAK	
<ul style="list-style-type: none"> • A ze parea, karakola eta barea (15) • Abenduko eguna, argituko orduko iluna (1) • Agur benur eta jan jogurt (3) • Alfer egon eta alfer lana egin, biak berdin (1) (N) • Amen: zu hor eta ni hemen (1) (N) • Ameriketara be txakurrek ortozik (1) (B) • Arrats gorri goiz aterri (1) (B) • Arratsaldea gorri, goizean euri (1) (B) • Asko hitz egin eta gutxi esan (1) • Askoren mina, tontoen atsegina (1) (G) • Astoak zaldiari belarri haundi (1) (B) • Azaroa hotz, negua motz (1) • Bakoitzak berea, Jainkoaren legea (3) • Begiak beti argi (1) • Belarri batetik sartu, bestetik atera (3) • Bi begik batek baino hobeto ikusten dute (1) • Bihar arte Bonaparte (1) • Bost zentimetroko pupua eta bost euroko trapua (1) (N) • Dagoenean bonbon, ez dagoenean hor konpon/ egon (6) • Egizu beti on, ez jakin arren non (1) (N) • Egon zaitetz lo eta jango duzu mehe (1) • Eroriz ikasten da oinez (2) • Eskerrik asko eta horrelako asko! (1) • Eskerrik asko, Mari Belasko. Okela gutxi eta salda asko (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara bihotzean, baina erdara ezpainenetan (1) • Ezina, ekinez egina! (2) • Geroa, alferraren leloa (5) • Gezurrak, hanka motzak (2) • Gogoko lekuan aldaparik ez (2) • Egintzak lo eta jango duk mehe (1) • Hobe da ezer, ezer ez baino (1) • Hor konpon Maria Anton (9) • Jan eta edan eta bakea eman (1) • Jan eta lo, beti potolo (1) • Kanean uso, etxean otso (8) • Lan lasterra, lan alferra (3) • Lapur handiak baino errazagoa da lapur txikiak harrapatzea (1) • Nirea nire eta zurea gure (1) • Nolako aita, halako semea (1) (G) • Osasuna, munduko ondasuna (1) • San Blas, ito arte arnas (1) • Sudur luzeak urrutitik usaintzen du (1) • Txapela buruan eta ibili munduan (1) (G) • Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau (3) • Usteak erdi ustel (2) • Zenbat buru hainbat aburu (2) • Zer egingo dugu? Hil arte bizi (1) • Zer ikusi, hura ikasi (4) • Zozoak beleari, ipurbeltz (10) • Zu hor eta ni hemen (1)

OLERKIAK		
<ul style="list-style-type: none"> • Begiak ikusteko Bihotza maitatzeko Eta umore ona Zoriontsu bizitzeko (3) • Goian daukat burua Erdian bularra Alboetan besoak Esku eta atzamarrak Sabelaren erdian Zilborra kaxkarra Atzeko ipurditik Bota dut puzkarra (1) Dar-dar, dar-dar. Hatzez dar-dar, Gero-gero Zopa bero, Peru Peru Goian zero Udazkena joan da eta Etorri jaun negu (1) • Antton gure mutila, ipurdi borobila, galtzontzilloak jantzi, ta ahaztu zapatilak. (2) 	<ul style="list-style-type: none"> • Egia gezur, gezurra egi metro bateko sudurra hazi zait niri (1) • Han hori eta hura edaririk onena iturriko ura (1) Hau, hori eta hura. Edaririk onena iturriko ura. Hemen, hor eta han. Ogia «pan», ebaki eta jan (1) (N) • Elurra mara-mara Teilatu ertzak biribil Elurra mara-mara Lurra maindiretan bil Elurra mara-mara Amandre zuria pasiran dabil (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Elurra beltz eta ikatza zuri, odola berde, porrua gorri, egia gezur, gezurra egi, metro bateko sudurra hazi zait niri (1) • Hostoak lehor eta orriak zimel, udazkenean zuhaitzak beti goibel. (1) • Txiribipa Hutsik dauka tripa. Txiribipe Goseak dago Felipe. Txiribipi Korrika doa Pipi. Txiribipo Lurrera erori da Ziplo. Txiribipu Pipik belaunean pupu(1)

HAUR HIZKERA		
<ul style="list-style-type: none"> • A papa: kalera/pasatzera (3) (B) • Akabo (1) (N) • Apatxi(n)/apalatxo/apatx: eseri (12) • Aupa (1) (N) • Bapo: bukatu da/nahikoa (2) • Bibi: biberioia (2) • Bihotza (1) (N) • Fu: beroa/putz egin/erre (5) • Guau guau: txakurra (1) • Kaka (2) Katapun: erori (1) • Kili-kili: kilimak (3) • Koko (1) • Kosko: kolpea (1) • Kris-kras: itxita dago (1) • Ku-ku: ezkutatu/agertu (3) • Lolos: lo egin (8) • Mami/mama: ama (2) • Mamua (1) • Mari sorgin (1) (N) • Mau: haginkada (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Moñoño/Moñoña (1) (N) • Muxu (1) • Ñam-ña: jan (6) • Ninia: haur txikia (3) • Pa/patxoa: musua (6) • Pipi: txoria (1) • Pippi: txiza (1) • Pis pas: bukatu da (3) • Pis paus: bukatu da (1) • Pitin: pixka bat (1) • Pitxin: txikitxoa (1) (B) • Plisti plasta: uretan ibili (4) • Popo: autoa (1) • Pottoko/Pottoka (1) (N) • Pun (1) (N) • Punba/punbala: kolpea erortzean/jausi (3) • Punba: baloia (1) (N) • Punbala (1) (N) • Pupa/ pupua/pupu: mina (15) 	<ul style="list-style-type: none"> • Purrut-purrut: puzkerra (1) (B) • Sorgintxo (1) (N) • Tas-tas: jo (2) • Tata: arreba, ahizpa (2) • Tato: anaia, neba (1) • Tete: txupetea (5) • Tili-talan: zabua (1) • Tipi-tapa: oinez ibili (2) • Tirrina: zilborra (2) • Titi: bularra (1) • Txipli txapla: dutxa/bainua (1) • Txitxa/ txitxi: haragia (4) • Txuri: mototsa (1) • Upa-aupi: besoetan (2) • Zintz egin: mukiak kendu (1)

ZOTZ EGITEKO FORMULAK			
<p>Dona dona katona Sutondoan aitona lepotik behera kuttuna, irten kanpora neska edo mutil tunttuna (22)</p> <p>Dona dona katona Sutondoan aitona lepotik behera kuttuna, irten kanpora neska edo mutil tunttuna azeituna, babarruna, nor geldituko ote da. (3)</p>	<p>Don don kilikon Hortxe dator Don Ramon, Saltsa pika tortolika, Patinetean korrika (1)</p> <p>Don don kikilikon Saltsa pika Tortolika Patinean korrika (1)</p> <p>Don don kikilimon Saltsa pika Tortolika De bu zon Aitona martzelon Kixki eta mixki Eta kaxkamelon (4)</p> <p>Don don belendron, belendrongo elizan hiru atso dantzan, hirurek ez dute harri bana boltsan(1) (N)</p>	<p>Atxia motxia perlipan nire alaba errotan, Errotara nindoala topatu nuen asto bat, Kendu nion buztan bat ipini nion beste bat, Errota txikiak klin eta klan (1)</p> <p>Atxa mitxa zilarra, joa joa oilarra ardi beltza bilara, o pitxon biribilton, txin txan txon. (1)</p> <p>Pita pita margarita zuria eta polita (1)</p>	<p>Pin, pin, txoria, Txori papo- gorria. Jan, jan, koinata: Txori-salsa on bat da. (1)</p> <p>Harriola mariola Orratza da zorrotza Zizta gaitza hari txarra Tira bira zirrin zarran Eta zast! (2)</p> <p>Txirristi mirristi Gerrena, plat Oilo zopa, kikili salda Urea bero klik(1)</p>

AHO KORAPILOAK		
<ul style="list-style-type: none"> • Marigorringo Txurigorringo Bihar eguzki ala Euri egingo? (4) • Sei sorgin sasia, Solasean soilean, Sasi baten sarean solaski soilean. Sei sorgin sasia (2) • Entzun, entzun, Entzun, entzun. Barnean, kanpoan, Hitzak oihartzun! (1) • Bitxilore lore bitxi Patxi pitxi bitxilore Batzen biltzen Zortzi lore (1) • Akerrak adarrak okerrak ditu Adarrak okerrak akerrak ditu Okerrak adarrak akerrak ditu Okerrak akerrak adarrak ditu (6) 	<ul style="list-style-type: none"> • Martin bonbin Errege eta sorgin Tipula eta gatz Martin ipurdi latza (1) • Tantarik tanta, euriak kanta, Hodeiak zutik eta erreka etzanda! (1) • Hitzaren giltza hitzaren giltza ahoa ireki eta elkarrekin mintza (1) • Baga, biga, higa laga, boga, zega zahi zohi bele arma tiro pun (1) • Jan barik jun biherrien, jaik jan, jon janda jun da ta (1) (B) • Umiek handiak gure badozak hazi, azie emoten ez hasi (1) (B) 	<ul style="list-style-type: none"> • Tza tza tza Pasatzen dut erratza Tze tze tze Gela nago garbitzen Txi txi txi Mantala dut jantzi Tzo tzo tzo Zikindu nintzen atzo Tzu tzu tzu Dantzan tzun pan tzun (1) (N) • Atzo hil ziren hamar atso. Etzi hilko dira hemeretzi (1) (N) (G) • Hasi eta hazi, hesi eta hezi, denak ongi bereizi (1) (N) • Mari Bekain, Mari Bekain! Ohetik jaikita, begiak apain! (1)

JOLASAK	
<i>(jateko, txalo, laztanak, kilimak, atzamar, besoetan, kuku, magalean, sendatzekoak, korroan...)</i>	
<ul style="list-style-type: none"> • A la kinkirrinera (3) • Arre arre mandako (2) • Asma ezak (1) • Begira, begira, uztail biribila, zertarako, zertarako? Denok jolasteko (1) • Dilin dalan bihar bai dela jaia... (3) • Dilin-dalan, bihar ez da jaia... (3) • Eragiozu (2) • Errege batek (1) • Eskutxoa, eskutxoa (9) • Hau zango (1) • Honek egurra bildu... (4) • Ixtorio mixtorio (3) • Jan, jan, jan (4) • Kanika txiki bat (4) • Korro Txirinbolo (4) • Korroka dantzaka (1) • Korru korru korruan (2) • Lehenengotxo hori (3) • Lehoi baten bila noa (1) • Maritxipi (1) • Muxurru-muxurru (1) • Pin, pan, sua (gomarekin) (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Senda mina, putz urdina. Joan da joan da zure mina. (2) • Senda, senda, miriku, oilo kaka, xiriku. Amen. Zu hor eta ni hemen. (2) • Talo talo txin (1) (N) • Taloa xehetu kabarran ...-en belarrian(1) • Txalo pin txalo (4) • Txalo pintxalo, txalo pin-pin, etxean/eskola dago ... (izena) txiki. (1) • Txalo pintxalo, txalo pintxalo, zapata berriak-rentzako (1) • Txalo txalo txaloka, antxitxiketan eta bueltaka (1) • Txalopin txalo txalo... (1) • Txalo-txalo txalotxin, hator etxera Mattin (2) • Txokolate (2) • Xagu txiki (8) • Xirristi-mirristi (1) • Zer da zarata hori? (1) • Zubiri-zubiri (3)

* jolasen letrak eranskinetan

LO- KANTAK

- ^ (Izena) mimoti, bere mimoekin, ohera joaten da amatxorekin/aitatxorekin
aitatxok/amatxok erantzi, amatxok/aitatxok abestu, gure neska/mutil motza
betiko kontentu (1)
- ^ Anai xanti, anai xanti. Lo zaude, lo zaude,
Kanpaia jotzen du, kanpaia jotzen du.
Din, dan,don. Din, dan, don (1) (N)
- ^ Amaren bularra (1)(B)
- ^ Egizu lo (1)
- ^ Haurtxo polita sehaskan dago (6)
- ^ Ixilik soinu denak (1)
- ^ Lo eta lo ene potxolo (1)
- ^ Loa loa txutxurubere (1)(B) (G)
- ^ Lolo txikitxo lolo maite, lolo txikitxo bihar arte, lolo txikitxo lolo maite,
lolo txikitxo bihar arte (1)(N)
- ^ Lotan nago, begiak itxita (15)
- ^ Ttunkurrukuttun (1)
- ^ Umetxoa, lo egizu, amaren magalean, aingeruak zaintzen zaituzte, ama
lanean den artean, lo egizu maitea, zu zara nire bihotza. (1) (N)

* lo-kanten letrak eranskinetan

KANTAK		
<ul style="list-style-type: none"> • Agate deuna (2) • Agur, agur etxera goazu (1) • Aizkolaria (1) • Alaken (1) • Aldapeko (2) • Alferraren astea (2) • Altxa Felipe (1) • Andre Madalen (1) • Animalien ibilkera (4) • Apalatxo (6) • Apatx egin eta, lurrean eseri naiz (2) • Arantxan txan (1) (B) • Ardoa edanda (1) • Arroxali (1) • Artillero (2) • Astoa ikusi nuen (1) • Astoa ja ja ja (1) • Aurretik doana (1) • Banpiro bat naiz (1) • Batu, batu (3) • Bazkaldu nahi dugu (1) • Behera, behera (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Federiko riko (2) • Furra Furra (2) (B) (N) • Gaur da ostirala (2) • Gaztain saltzaillea (1) • Goazen bai etxera (1) • Goazen komunera (1) • Gora gure ikastola (1) (B) • Gorputzaren soinua (8) • Guk euskaraz (1) • Gure bazterrak-Mikel Laboa (1) (B) • Gure laguna delako (1) • Han zeuden (9) • Hator Hator (2) • Hau dok umorea (1) • Horra Mari Domingi (1) • Ibilerak (ene kantak) (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Laguna ona delako... (1) • Lau teillatu gainean (1) • Loiolan jai jai (1) • Loretxoa (1) • Mack Mikel (1) • Maitasuna (1) • Maitre Zaitut (1) • Maitia non zara (1) • Mari Domingi eta Olentzero (1) • Mari-gorri fly fly (1) • Mari kanela (4) • Maritxu nora zoaz (4) • Markitos (1) • Markoxen txerrixo (1) (B) • Martuteneko tren (1) • Matxinsaltoa (2) • Mila kilo zorion (1) • Mozorro jai nintzen (1) • Musika tresnak (2) • Nik etxeto bat daukat (1) • Nire aitak amari (1) (B) • Nola zaude laguna (1)
<ul style="list-style-type: none"> • Ran rober ran (5) • Sanba, sanba eta sanba (1) • Sorgina pirulina (14) • Tope tope tomatxa (2) • Traktore baten gainean (2) • Trapu zaharrak-Iparragirre (1) • Trikitixa, trikitixa (5) • Triste bizi naiz eta (1) • Ttantto marigorringo (3) • Txakur bat erosi dut (1) • Txanogorritxu dut izena (3) • Txantxibiri txantxibiri (3) • Txerrikumeak gara gu (1) • Txiki, txiki, txikia (13) • Tximeleta mendian (1) (B) 		

KANTAK			
<ul style="list-style-type: none"> Behin betiko (1) Behin joan nintzen azokara (2) Benito otsoa (1) Betor bakea (1) Bi beso ditugu eta bi esku (1) Boga boga (1) (B) Bokalen abestia (1) Din dan golo golo (1) Dragoi berdea (2) Egun on ama, egun on aita (2) Elurra teilatuan (2) Elurra mara-mara (6) Elurrezkoa pampina (1) Euri tanta (1) Euskal Herrian euskaraz (1) 	<ul style="list-style-type: none"> Igurtzirik bi eskuak (2) Ikusi mendizaleak (7) Ikusi-ikusi han (6) Inurria eta txirrita (1) Itsasontzi baten (2) Ixilik ixilik dago (1) Izeba Pantxika (1) (B) Jasotzera, jasotzera (3) Jon Brown (4) Kanta ta kanta ta kanta Gasteizko gau argietan (1) Kask, kask atean (1) Kilometro bat oinez (2) Klin-klan (5) Kolore kolore (1) Kolpe kolpe kolpeka (1) Kua kua (1) Kuku bi esku ditugu (1) 	<ul style="list-style-type: none"> O, bugi, bugi, bugi bai, hey! (5) Olentzero joan zaigu (4) Orpo punta (1) Ostirala iritsi da (7) Parabara perebere (1) (B) Paristik naturren (4) Pingui pingui (7) Pintto, pintto (8) Pirata alferrak (1) Pirata patapalo (2) Plisti-plasta (2) Pozik bazaude egin txaloka (1) Pulpez olagarroa (1) Pupu eta lore (1) 	<ul style="list-style-type: none"> Tximu bat ikus dut (1) Txirritx kilkerra (2) Txori txiki bat (1) (B) Udaberrian kantu (1) Udazken ken ken (1) Udazkena (1) Unrtxia (1) Ur azpian, ur azpian (1) Urtxintxak oihanean (1) Xalala riki riki (2) Xalbadorren heriotzean (1) (B) Xoxoak galdu du mokoa (2) Xu xu xuabe (2) Zapatak (2) Zapi zuria (3) Zazpi antxumeak (1) Zein ondo koltxonetetara (1) Zirku bat datorkigu (1) Zorionak zuri (5) Zuri zorionak (1)

* kanten letrak eranskinetan

IGARKIZUNAK/ASMAKIZUNAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputzean dituzu Bi dituzu Bakoitzean 5 atzamar dituzu Eta ukitzeko balio dute Zer dira? (eskuak) (1) • Balio dute jateko, baita hatz egiteko, asmatzen baduzu, baita txalo egiteko (eskuak) (1) • Balio du jateko, balio du ukitzeko, Txalo egiteko eta nola ez! Orri hau pasatzeko Zer da? (eskua) (1) • Bata alde batean, Bestea bestean, Bi dituzu Eta entzuteko balio dute Zer dira? (belarriak) (2) • Gure gorputzaren antenak ondoan daude soinuak entzuteko direnak (belarriak) (1) • Bi anai Biak berdin-berdinak Ikusmen ona, Eta ezin elkar ikusi Zer dira? (begiak) (2) • Bi nini doaz parean Ezin elkarri begiratzu (Begiak) (1) (N) • Aurpegian daude eta ikusteko dira Zer da? (begiak) (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Aurpegian dago Barruan hortzak eta Mingaina dauzka Jateko balio du Zer da? (ahoa) (2) • Ezetz asmatu hortzen garajea Zein den? (ahoa) (2) • Kobazulo hori, beti dago hezea hesi zuriz inguratutako bizi da herensugea. zer da? (ahoa) (1) • Busti-bustia dago, eta ez da ura; Oso berritsua da eta zu ez zara; Hura kenduz gero isilduko zara Zer da? (Mingaina) (1) • Lepoari beti itsatsita eramaten dugun baloia zer da? (burua) (4) • Bere puntan bost zizaretxo, zapata barruan eroso, lurrean beti jarrita zutikan egoteko (oinak) (1) • Bata beti gainean eta bestea bere azpian, hor daude zure aurpegian musuka denbora guztian (ezpainak) (2) • Tantaka tantaka Goitik behera Jaisten naiz Hodei artetik (euria) (1)

IGARKIZUNAK/ASMAKIZUNAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Bi ditugu aurpegian Kolore desberdinekoak izan daitezke Horien bitartez ikuste dut Zuek neska mutil politik zaretela Zer dira? (begiak) (1) • Zabaldu eta itxi, bi leiho txiki azpian sudurra, gainean bekoki (begiak) (1) • Zabaldu eta itxi, bi leiho txiki, batzuetan lehor, besteetan busti, azpian sudurra, gainean bekoki (begiak) (1) • Luze-luze duzu, aurpegiaren erdian, Bi zulo txo ditu, puntaren azpian, Kandelak pizten dira haien sukaldean Zer da? (sudurra) (1) • Aurpegian dago, bakarra dugu eta bi zulo txo ditu. Zer da? (sudurra) (1) • Puntan punta bat, Atzean zulo bat (jostorratza) (4) • Bost lagun dira, bata txikia, beste bat lodia, Beste bat luzea, beste bat alferra Eta azken-azkena lan egiten duena Zer dira? (Atzamarrak) (1) • Batzuenak argalak. Besteenak gizenak. Korrika egiteko beharrezkoak direnak (hankak) (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Mugi mutiko eta Neskato Ta zoaz etxera Bestela bustiko zaitut nik Zer da? (euria) (2) • Ez naiz haizea, ez naiz elurra baina nire negarrekin bustiko dizut burua eta bustiko da zorua (euria) (1) • Zerutik nator, mara-mara Zuria, hotza, eta ederra Mendian txuri gailurra Nire izena da... (elurra) (2) • Matxin dut izena Eta saltoka ibiltzen naiz Ez naiz oso gizena Baina azkar eta arina bai. (M letra) (1) • Ile edo hariz eginda Txuri, gorri edo urdina Leporako lagun atsegina Gozatzeke negu gordina Zer da? (bufanda) (1) • Gona luzea du mihia motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotsa. (kanpaia) (1) • Zuri-zuri eta biribil, iluntasunean beti (ilargia) (2) • Goizean etorri eta gauean joaten da eta zeruan ikusten dugu (eguzkia) (1) (N)

IGARKIZUNAK/ASMAKIZUNAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Beti dago zutik eta ez daki ibiltzen. Hiru begi ditu, autoak gidatzen. Gorri, berde, hori, zuk asmatu hori (semaforoa) (1) • Ez naiz autoa, kamioia ere ez. Bi gurpilekoa naiz, baina bizikleta ez. (motorra) (1) • Kurrin-kurrin, kurrin-kurrin, zein da nire izena, ezetz igarri arin! (txerria) (1) • Tipi-tapa dator, tipi-tapa doa, ehun hankaren gainean egiten du txangoa (ehunzangoa) (1) • Gatzik gabekoa izaten da (geza) (1) • Bide busti luzea itsasora doana (ibaia) (1) • Mendian sortu, bidean hazi, itsasora joan eta bertan bizi (ibaia) (1) • Uretatik kanpora ateratzen dutenean ito egiten da (arraina) (1) • Tirriki tarraka, beti arrastaka, bi adiskide gara zuk min ez hartzeko, gure gainean jartzen zara eta bazterrean uzten gaituzu, joaterakoan lotara (zapatak) (1) • Zer dela eta zer dela aurrean punta bi eta atzean zulo bi? (guraizeak) (2) 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikusi makusi. Zer ikusi? Gauza bat? Eta zer gauza? Hasten dena? (7) • Zapaltzen banauzu: irrist! Burbuilak lehertzean: plist! Uretan eskuartean: blist! Komunean naukazu: irrist! plist! Blist! (xaboia) (1) • Ahorik izan gabe disko txikiak jan eta musika egiten duena? (Cd-ak, disko-jogailua) (1) • Egongela, sukalde, logela eta komun; Barruan bizi gara igande eta astegun (etxea) (1) • Aita da baina ez gurea. Ona da eta ez gaztea (aitona) (1) • Euria eta beroa batera zazpi colore kanpora (ostadarra) (1) • Erratz gainean arinak Sudurrak luze eta finak Beltzak hortz eta haginak Hegan dabilta (sorginak) (1) • Zuri zuria, beti hegaka, ehiztaria etortzean, beti presaka Nor naiz? (usoa) (1)

IPUIN HASIERAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Bolo bola bat, bolo bolo bi, «kua, kua, kua» ipuina hasiko da «kua, kua, kua» ipuina hasiko da Begiak zabal zabalik Belarriak erne-erne Eta ahoa itxita (1) • Bolo bola bat, bolo bolo bi, «kua, kua, kua» ipuina hasiko da Txiribi txiribita begiak irekita eta ahoa itxita (1) • Bolo bat eta bolo bi isil-isilik nago ni begia zabalik, belarriak erne eta ahoa itxita edo josita (1) • Kukua kukua, gure ipuina hasiko da, Ireki begiak, belarriak prest Arnasa hartuta, lasaitu zaitetz (1) • Dilin, dalam, dilin dala ipuinaren ordua da Dilin dalam dilin dalam denok entzutera Begiak zabalik, den dena ikusteko Belarriak adi entzuteko Ahoa krix krax, itxita ipuina hasiko da! (1) • Ku-kua ku-kua ipuina hasiko da (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Tik, tak, tik, tak ipuinaren ordua da, Begiak zabalik, belarriak erne, Ahoa itxita eta ipurdia eserita(1) • Adi lagunak, begiak zabal zabalik, belarriak ondo garbitu eta kremlera itxi eta poltsikora (1) • Arla marla, sege mege, igi migi, arta pataki, zer gertatuko den, nork daki? (1) • Patxun patxun patxun ipuin hau hastera doa, begiak zabal-zabalik, belarriak adi-adi, ahoa itxita eta ipurdia eutsi ondo hegan ez egiteko. (1) • Tok, tok tok! (ipuina joz) Goazen denok ipuina esnatzera. Ipuinaa esnatuu! (1) • Txiplitxi txaplatxa, ipuina hasiko da. (1) • Bolo bat eta bolo bi isilik nago ni(1) • Dilin dalam dilin dalam ipuinaren ordua da Ireki begiak, belarriak eta ahoa itxita(1)
<ul style="list-style-type: none"> • Aspaldi aspaldian bazen... (2) <ul style="list-style-type: none"> • Aspaldian... (1) • Bazen behin... (22) • Behin ba omen ziren...(1) <ul style="list-style-type: none"> • Behin batean... (11) <ul style="list-style-type: none"> • Behin... (1) • Beste egun batean... (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Duela urte asko eta asko... (1) (N) <ul style="list-style-type: none"> • Egun batean... (2) • Elefanteak hegan egiten zuten garaian... (1) <ul style="list-style-type: none"> • Gau ilun bat zen... (1) • Gomuta ez dudan herri batean... (3) <ul style="list-style-type: none"> • Hau...da. (1)

IPUIN HASIERAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Herri txiki eta polit batean... (1) (N) • Herri/herrixka/etxe batean... (2) <ul style="list-style-type: none"> • Kaixo... naiz. (1) 	<ul style="list-style-type: none"> • Munduan beste asko legez,... (3) • Orain dela denbora/urte asko... (7) <ul style="list-style-type: none"> • Urrutiko herrialde/lurralde batean... (2)

IPUIN BUKAERAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Hala bazan eta ez bazan Sar dadila kalabazan Eta atera dadila plazan (23) • Hala bazan eta ez bazan Sar dadila kalabazan Eta atera dadila, puf, puf, puf, plazan (1) • Hori hala bazan edo ez bazan zuek behintzat gezurrik ez esan (2) 	<ul style="list-style-type: none"> • Eta bat, bi, hiru, lau Ipuin hau bukatu da (1) • Binbili bonbolo ipuin hau amaitu da, binbili bonbolo egin dezagun txalo (1)
<ul style="list-style-type: none"> • Bi eta bi, lau, amaitu da ipuin hau (1) (B) • Egia ala gezurra, bi begien artean, sudurra! (4) • Egia bada sakelan sar, eta gezurra bada kontuan ez har (1) • Eta handik aurrera denak pozik eta bakean bizi izan ziren (2) <ul style="list-style-type: none"> • Eta horrela pozik bizi izan ziren betirako (1) <ul style="list-style-type: none"> • Eta zoriontsu bizi izan ziren (1) • Ezkerra ta eskuina bukatu da ipuina (1) (B) • Haiek ondo bizi izan baziren, gu ere ondo bizi gaitezen (5) <ul style="list-style-type: none"> • Hurrengora arte! (1) • Kolore kolorete tximiniatik ateratzen da kohete (1) (B) <ul style="list-style-type: none"> • Ku-kua ku-kua ipuina bukatu da (1) • Miau miau, katu, katu, ipuina bukatu (1) • Txipli plu, txipli pla, ipuina bukatu da! (1) • Txiplitxi txaplatxa, ipuina bukatu da (1) • Txuriko txurika ...-ren ipuina bukatu da (1) • Txurikun txurikan txurikurikan gure ipuina bukatu da (1) 	

Emaizten interpretazioa

Azaldu berri ditugun emaitzetan ikus daitekeenez, askotarikoak izan dira jasotako erantzunak, batzuetan kontu bakoitza behin baino ez da errepikatu, beste batzuetan ordea, kontua inkesta bat baino gehiagotan errepikatu da. Begi bistan da ahozko esapide batzuk askotan errepikatu direla, ondorio zehatz batera eramanez, tradizioaren transmisioak kontu batzuetan indar asko duela. Ondorengo lerroetan, emaitzetan bezala, emaitzak banan-banan azaleratuko ditugu geroxeago ondorio orokorrak atera ahal izateko.

Emaizten interpretazioei heldu aurretik esan behar da, ikerketa honen helburua eskoletan egun ahozko erretorikak duen presentziaren lagina ateratzea izanik, materialaren bilketa soila egin dela; materiala, beraz, nahasia datorrela, hori dena ordenatzea beste helburu bat eta lana izango litzatekeelako. Beraz, argi gera bedi nahasian jaso direla tradizio zaharreko materialak: tradizio berritukoak («Aizak eta aizan», adibidez); ikastola-mugimenduan sortuak («Sagu txiki, sagu maite» eta beste) eta egileek asmatuak, Xabier Olasok edota Imanol Urbietak, kasurako.

Hori argiturik esaera zaharrei dagokionez, 50 izan dira jaso ditugun esakerak. Askotariko mezuak, gertakizunak, lezioak, hitz jolasak... aurkitu ditugu. Gehien errepikatu direnak ondorengoak dira: *A ze pareta, karakola eta bareta* (15 aldiz), *Zozoak beleari, ipurbeltz* (10), *Hor konpon Maria Anton* (9 aldiz) eta *Kalean uso, etxean otso* (8 aldiz). Bizkaiko inkestetan jasotako esaeretan mendebaldeko hizkera nagusitu da, hots, bizkaiera. Esate batera, *Arrats gorri, goiz aterri*.

Olerkien kasuan, hamarretik bakar bat izan da hirutan azaldu dena: *Begiak ikusteko, bihotza maitatzeko, eta umore ona zoriontsu bizitzeko*. Olerkietan gai ezberdinak aurki daitezke: gorputza, gezurrak, eguraldia, urtarook..., haurren egunerokotasunetik hurbil dauden gaiak direla baieztatu daiteke.

Haur hizkeraren ezaugarri nabariena hiztegiaren sinplifikazioa izan da. Hau da, haurrekin hitz egiteko hitzak moztu edo modu sinplean erabiltzen ditugu. Baita hitzak moldatu ere, haurrek erabiltzen dituzten kontsonanteak eta bokalak kontuan harturik. Gehien errepikatu diren kontuak haurren egunerokotasunetik hurbil dauden ekintzak izendatzeko erabiltzen

ditugunak izan dira: *pupa/pupua/pupu*: *mina* (15 aldiz), *apatxi* (n)/*apalatxo/apatx*: *eseri* (12 aldiz) eta *lolos*: *lo egin* (8). *Lolos* terminoaren kasuan erdarearen presentzia aipatu behar da «s» horren eransketan, usadioan agertzen ez zena, eta berriki agertzen hasi dena. Batzuetan ekintza bera izendatzeko modu desberdinak agertu dira, esaterako *pipi*: txoria edo pixa.

Zotz egiteko formulei dagokionez, 12 formula jaso ditugu, guztiak eskema berarekin. Gehien errepikatu dena klasiko bat da: *Dona dona katona, sutondoan aitona, lepotik behera kuttuna, irten kanpora, neska edo mutil tuntuuna* (22 aldiz). Mikel Laboak *Baga biga higa* abestian erabiltzen duen dekorazio olerkia ere aipatzen da zotz egiteko formuletan; *Txirristi mirristi gerrena plat...*

Aho korapiloen kasuan, 15 jaso ditugu. Zotz egiteko formuletan bezala, gehienetan errepikatu dena, sei aldiz, klasiko bat izan da: *Akerrak adarrak okerrak ditu...* Bizkaiko inkesta batean agertu den aho korapilo bat nabarmentzekoa da, alde batetik bizkaiera agerian delako eta bestetik hitz joko interesgarria agertzen delako: *jan barik jun biherrien jaik jan, jon janda, jun da ta.*

Jolasetan, bi jolas nagusitu dira, alde batetik atzamarrekin jolasteko erabiltzen den *Eskutxoa*, *Eskutxoa* eta bestetik lagun-taldean jolasteko *Xagu Txiki*; 9 aldiz eta 8 aldiz errepikatu dira, hurrenez hurren. Biak klasikoak dira eta gaur egungo ikastoletan askotan erabiltzen dira, haurren adina kontuan hartu gabe, erabilgarriak eta arrakastatsuak direlako.

Lo kanten kasuan, kanta bat nagusitu da, *Lotan nago, begiak itxita*, izan ere, 15 inkestetan aurkitu izan da. Atal honetan, aipagarria da klasikoak Bizkaian eta Nafarroan agertu direla: *Loa loa txutxurumbere* dekorazio olerkia eta *Umetxoa, lo egizu*, hurrenez hurren.

Kantuen kontua arrakastatsuen izan da, azken finean gure kulturaren kantak abestea oso tipikoa izaten da. Hain zuzen ere 142 kanturekin aurkitu gara, errepertorio zabala, denetarik jasotzen duena: klasikoak, Gabon kantak, haur kantak, euskal kantak, gaur egungo kantak, urtebetetze-koak,... Hamalau aldiz errepikatu den abestia, besteen gainera nagusituz, *Sorgina Pirulina* izan da, atzetik *Txiki Txiki Txikia* abestia 13 aldiz errepikatu da. Nahiz eta abesti gehienek nahiko modernoak diruditen klasiko asko

azaldu dira, esate baterako: *Xalbadorren heriotza* (Bizkaiko inkestan aurkitua), *Itsasontzi baten*, *Agate deuna*, *Aldapeko*, *Furra furra*, *Trapu zaharrak*, *Loiolan jai jai...* «Kanta modernoak» izan daitezkeenak urteekin klasiko bihurtu direla baieztatu daiteke, esate baterako, *Pintto Pintto*, *Txiki Txikia*, *Ostirala iritsi da...*

Igarkizunen kontua, kantuen bezala, arrakastatsua izan da, nahiz eta hasiera batean ez espero. 50 igarkizunekin egin dugu topo. Gaiak askotariakoak dira, baina gehienak haurren egunerokotasunetik hurbil dauden gaiak dira: gorputz atalak (ahoa, begiak, sudurra, eskuak...), eguraldia (euria, elurra...), animaliak (arraina, usoa...), materiala (guraizeak, cd-ak...)... Hitzez hitz, gehien errepikatu diren bi igarkizunak ondorengoak dira: *Lepoari beti itsatsita eramaten dugu baloia. Zer? (burua)* (4) eta Xabier Etxanizen liburu bati izenburua ematen dion igarkizuna, hau da, *Puntan punta bat, atzean zulo bat (jostorratza)* (4). Askotan errepikatu den beste gauza bat igarkizunak egiteko erabiltzen dugun formula da, hau da, *Ikusi makusi. Zer ikusi? Gauza bat. Zer gauza? Hasten dena...* (7).

Ipuinen hasierari dagokionez, ezagunak diren bi klasikoak nagusitu dira, *Bazen behin* (22 aldiz) eta *Behin batean* (11 aldiz). Klasikoez aparte, ipuin hasiera oso politak agertu dira, esate baterako, *Arla marla, sege mege, igi migi, arta pataki, zer gertatuko den, nork daki?*; edo, *Elefanteak hegan egiten zuten garaian...*

Ipuinen bukaeren kasuan, hasieretan bezala, klasikoa nagusitu da, hau da, *Hala bazan edo ez bazan...* (23 aldiz). Baina honetan ere, bukaera dibertigarriak aurkitu ditugu, esaterako, *Hori hala bazan edo ez bazan zuek behintzat gezurrik ez esan*; edo, *Kolore kolorete tximiniatik ateratzen da kohete!*

Ahozko erretorika tradizioan eraikia badago ere, iraganeko egitura hauek hitz berriz ziprztintzen dira eta horien ondorioak dira formula mistoak, antzinako egituraren erritmoa eta errima lagun dituztenak, baina oraina dutenak erreferentzia: *Agur benur eta jan jogurt; bost zentimetroko pupua eta bost euroko trapua; eskerrik asko, Mari Belasko. Okela gutxi eta salda asko; hor konpon, Mari Anton; hala bazan edo ez bazan, zuek behintzat gezurrik ez esan.*

Kontu guztiak banan-banan aztertu eta interpretatu ondoren, emaitzen analisiekin amaitzeko, gure emaitzak aukeratutako lau Haur Folkloreen Bil-

dumarekin (Lertxundi, 2000; Olaso, 2001; Galtzagorri, 2008; Etxaniz, 2009) konparatu ondoren, ondorio hauek azpimarratu ditugu. Ondorio nagusiena eta garrantzitsuena lortutako ekarpen berrien kopurua da, hau da, bilduma esanguratsuak aztertu eta gure emaitzekin konparatu ondoren, material berria dugula baieztatu dezakegu. Esaterako, esaera zaharretan, *As-toak zaldiari belarri haundi, Eskerrik asko eta horrelako asko!*, *Osasuna munduko ondasuna*, *San Blas ito arte arnas...*; olerkietan, *Hostoak lehor eta orri zimel, udazkenean zuhaitzak beti goibel*, etab.; haur hizkeran, *purrrut-purrrut* (puzker-rra), *kris-kras* (itxita), *mau* (haginkada)...; zotz egiteko formuletan, *pi*, *pin txoria...*, *pita pita...*, etab.; aho korapiloetan, *bitxilore lore bitxi...*, *sei sorgin sasian...*, etab.; jolasetan, *begira begira uztaile biribila...*, *korroka dantzaka...*, *Maritxipi...*, etab.; lo-kantetan, *lotan nago...*, *egizu lo...*, etab.; kantetan, *Mack Mikel, animalien ibilkera, Pirata Alferrak...*, etab.; igarkizunetan, *mendia sortu, bidean hazi, itsasora joan eta bertan bizi (ibaia)*, etab.; ipuin hasieretan, *elefanteak hegan egiten zuten garaian...*, *tok, tok, tok ipuina esnatu!*, etab.; eta ipuin bukaeretan, *miau-miau, katu-katu, ipuina bukatu!*, *txipli plu txipli plan ipuina bukatu da!*, etab. Beraz, tradizio berri bat transmititzen ari dela ondorioztatu daiteke. Hala ere, kontu batzuk bilduma esanguratsuetan eta gure emaitzetan errepikatzen direla ikusi dugu; errepikatzen diren esapide gehienak Etxanizen (2009) bilduman aurkitu ditugu.

Gure ikerketan gehien errepikatu diren esaera zaharrak, zehazki hiru, Etxanizen (2009) eta Lertxundiren (2000) bildumetan aurkitu ditugu, ondorengoak direlarik: *A ze pareta, karakola eta bareta; Kanean uso, etxean otso, eta Zofoak beleari, ipurbeltz.*

Haur hizkeraren kasuan, Etxanizen (2009) bilduman aurkitu ditugu gure ikerketan gehien errepikatutako hiru hitz: *apatx (eseri), lolo (lo egin) eta pupa (mina)*. Zotz egiteko formuletan, ordea, bakar bat izan da Etxanizen (2009) bilduman aurkitu duguna: *Dona dona katona, sutondoan aitona, lepotik beherra kuttuna, irten kanpora, neska edo mutil tuntuina*.

Gure ikerketan azaltzen diren aho korapiloak Olaso (2001) eta Etxanizen (2009) bildumetan aurkitu ditugu. Baina ikerketan gehien errepikatu den aho korapiloa Etxanizen (2009) bilduman soilik agertu da: *Akerrak adarrak okerrak ditu...* Jolasen kasuan, ordea, hiru bildumetan aurkitu ditugu: Etxa-

nizen (2009), Lertxundiren (2000) eta Galtzagorrirenetan (2008). Ikerketan gehien errepikatu den jolas bat, hots, *Xagu Txiki*, Lertxundiren (2000) bilduman aurkitu dugu. Gainontzeko bi bildumetan azaldu direnak gure ikerketan gutxi errepikatu diren jolasak dira, esate baterako: *Xirristi-Mirristi*; *Arre arre mandako*; *Eragiozu eskutxoari...*

Lo-kanten kasuan, bi bildumetan aurkitu ditugu: Etxanizenean (2009) eta Galtzagorrirenean (2008). Kasu honetan, bi lo-kanta izan dira aurkitu ditugunak, biak bi klasiko direlarik: *Haurtxo polita* eta *Loa loa txutxurumbere*. Kanten kasuan, ordea, Etxanizen (2009) bilduman aurkitu ditugu, baina gure ikerketan gehien errepikatzen diren kantak ez dira agertzen, hau da, *Sorgina Pirulina* eta *Txiki Txiki Txikia* abestiak ez dira azaldu. Izan ere, bi kanta hauek, aipaturiko ikerketak buruturiko tenorean, ez ziren existitzen.

Igarkizunak Olaso (2001) eta Etxanizen (2009) bildumetan aurkitu ditugu. Baina gure ikerketan gehien errepikatu den igarkizun batek Etxanizen bildumaren izenburuarekin bat egiten du, hau da, *Puntan punta bat, atzean zulo bat (jostorratza)*. Amaitzeko, ipuin hasierak eta bukaerak Etxanizen (2009) bilduman aurkitu ditugu. Gure ikerketan gehien errepikatu direnak eta bilduman aurkitu ditugunak bi klasikoak izan dira: *Behin batean...* eta *Hala bazan edo ez bazan...*

Ondorio orokorrak

Ikerketa honen ondoriorik orokorra da, marko teorikoan agerian geratu den kezka ahozko erretorikaren galera izanik, oraindik ere eskoletan ahozko erretorika ezagutzen dela, eta biltegi azkar bat egiteko gauza garesti hila batzuen buruan, eta, esaera zaharrak ez ezik, berriak ere sortu direla denboraren joanean. Beraz, marko teorikoan pil-pilean dagoen kezka erantzun gisa ondorio atera daiteke eskolan bederen kezka horrek baduela segida eta ahozko erretorika biltzeko eta transmititzeko kezka dagoela. Gainera, eskola da tradizioa transmititzen duen eragile nagusia, ondorengo familia (Igerabide, 2003) delarik. Izan ere, eskolak ezagutza ezberdinen irakaskuntzarako baliabide hauetara jotzen du, modu ludiko eta erakargarri baten bidez haurren ezagutza berriak bermatzeko.

Emaitzen interpretazioa egiteak askotariko zalantzak, kuriositateak, eta ondorioak ateratzeko aukera ematen du. Adibide bat jartzearen, esaera zaharren kasuan, deigarria izan da kopurua: berrogeita hamar. Kopurua ez ezik esanahiei eta erabilpenei ere kasu eman behar zaie, izan ere, esaera horien mezu batzuk haurren egunerokotasunetik hurbil daude, edota haurren egunerokotasunean erabiltzeko aproposak dira. Baina beste batzuk, ordea, haurren esparruan edo egunerokotasunean txertatzeko edota erabiltzeko lekuz kanpo geratzen direla baieztatu daiteke, esate baterako, *San Blas ito arte amas, Jan eta lo, beti potolo...* Esan nahi da, tradizioak sorturiko mezuak askotan deskontestualizatuak edota desegokituak geratzen direla, eta irakaslearen zeregina litzatekeela egungo errealitatera txertatzea haurren egunerokotasunetik urrun egon daitezkeen esaera zahar horiek.

Bildu berri ditugun ahozko esapideetatik ateratako ondorioen ostean, memoria honen helburuari atxikitzen gaitzaizkiolarik, gogoratu behar dugu ahozkotasanaren garrantzia eta onurak (Colomer, 2010; Igerabide 1993, 2003, 2011) azalera zuela lehen xedetzat lan honek eta hala azpimarratuta geratu dela, adituen teoriak medio, marko teorikoan. Bertan ikus daitezkeenez, ahozkotasanak askotariko onurak izan ditu eta ditu gure bizitzan (Etxaniz, 2004, 2011; Perdomo, 2003).

Azkenik, aipatu behar da hirugarren eta laugarren helburuak elkar osatu dutela, hau da, hamazazpi eskoletan banatutako inkestei esker eta lau haur folklore bildumekin egindako alderaketei esker, gure biltegiaren ekarpen berriak ezagutzeko aukera izan dugu, baita gure bilduman eta bilduma esanguratsuetan errepikatzen diren formulak ezagutzeko aukera ere. Honekin guztiarekin, konklusio orokor batera ailegatu gara: gure inguruan transmititzen den ahozko literatura baliabide agorrezina dela, izan ere, batetik, bizirik dirauten ahozko esapideak errepikatzen direlako eta, bestetik, berriak saio berrietara eginak jaiotzen ari direlako. Halere, ikusi den bezala, eskoletan, tradizioko materiala berriarekin nahasia dabil, eta datuei begiratu, tradizio zaharraren presentzia ahula da berriarena indartzen doan heinean.

Bukatzeko esan daiteke, Arabako eskoletan jaso den lagin hau osatze aldera, Euskal Herri guztira ikerketa zabaltzea oso interesgarria litzatekeela, gaur egun Haur hezkuntzan ahozkoak duen presentzia ikusteko.

Bibliografia

ALTZIBAR, X. (2008). «erretorika» AAW, or. 240, *Literatura Terminoen Hiztegia*, Euskaltzaindia.

AÑORGA, P. (2011). «Haur-literatura eta ahozketasuna» *Behinola: Hizpide*, 24, 21-28.

BARQUIN LÓPEZ, A., LASARTE LEONET, G. & GUILLO ARAKISTAIN, M. (2015). «HGL eta genero-berdintasuna». *Behinola*, 32, 13-31

BARRAGÁN MEDERO, F. (1989). «Conocimiento social, sexismo y literatura infantil». *CLIJ: Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 11, 8-12.

BELLIDO ZAMBRANO, J.J. (2010). «La tradición oral en la etapa infantil». *Revista digital innovación y experiencias educativas*, 35.

COLOMER, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Editorial Síntesis.

ETXANIZ ERLE, X. (2004). «La ideología en la literatura infantil y juvenil». *Cauce: revista de filología y su didáctica*, 27, 83-96.

ETXANIZ ERLE, X. (2009). *Puntan-punta bat (Haur folkloreaken bilduma)*. Iruña: Pamiela.

ETXANIZ ERLE, X. (2011). «La transmisión de valores en la literatura, desde la tradición oral hasta la LIJ actual.» *Ocnos*, 7, 73-83.

GALTZAGORRI. (2008). *Bularretik Mintzora CD (kantak, poemak, ipuinak)*.

GARTZIA, J. (2002) *Gaur egungo bertsolaritzaren baliabide poetiko-erretorikoak*. Bilbo: UPV/EHU.

HENCHE ZABALA, I. (2008). *Educar en valores a través de los cuentos*. Bonum: Argentina.

IGERABIDE SARASOLA, J.K. (1993). *Bularretik mintzora. Haurra, ahozketasuna eta literatura*. Donostia: Erein.

IGERABIDE SARASOLA, J.K. (2003). «Haur poesia eta ahozko tradizioa». *Revista Sancho el Sabio*, 18, 39-50.

IGERABIDE SARASOLA, J.K. (2011). «Bularretik mintzora: ahozketasuna eta eskola». *Behinola: Hitzatztea*, 24, 55-60.

JULIANO, D. (1992). «Los cuentos infantiles y el protagonismo femenino». *El juego de las astucias*, 53-80. Horas: Madrid.

KVALE, S. (2011). *Las entrevistas en investigación cualitativa*. Madrid: Morata.

LANDA, M. (1992). «Mezu ideologikoak haur literaturan». In UEUren Literatur Saila (Eds.), *Haur literaturaren inguruan*, 73-81. Bilbo: Boan S.A.

LERTXUNDI, A. (2000). *Aizak eta aizan elkarrekin dantzatzan*. Donostia: Elkar.

MOROTE, P. (1999). «La mujer en la literatura de tradición oral». In, Asociación Europea de profesores de español (Eds.), *El español a las puertas del siglo XXI: Actas del XXXIV Congreso Internacional de la Asociación Europea de Profesores de Español*, 121-134. Budapest.

MOROTE, P. (2010). «Universidad de la narrativa oral». In P. Cerrilo eta C. Sánchez (Eds.), *Tradición y modernidad de la literatura oral*, 139-151. Universidad de Castilla la Mancha.

OLASO, X. (2001). *Auskalo! (Igarkizun eta aho-korapiloak)*. Iruña: Pamiela.

PERDOMO LÓPEZ, C.A. (2003). «Revivir el folclore de la tradición oral: una experiencia». In A. G. Cano Vela eta C. Pérez Valverde (Eds.), *Canon, literatura infantil y juvenil y otras literaturas*, 281-291. Universidad de Castilla la Mancha.

RODRÍGUEZ POLO, J. (2003). «Literatura de tradición oral y desarrollo de habilidades lingüísticas d literarias en educación infantil: aproximación a las aportaciones Didácticas de las canciones de cuna». In A.G. Cano Vela eta C. Pérez Valverde (Eds.), *Canon, literatura infantil y juvenil y otras literaturas*, 293-301. Universidad de Castilla la Mancha.

SARASOLA, A. (2010). «Berdintasunaren ipuina». *Berria*, 2144, 47, (2010-05-18).